

Aitor, euskaldunen identitatearen eratzaillea

(Aitor, the builder of Basque people identity)

Toledo Lezeta, Ana M.
Deustuko Unib. Gizarte eta Giza Zientzien Fak.
Mundaiz, 50. 20012 Donostia
atoledo@deusto.es

BIBLID [1137-4454 (2010), 25; 325-349]

Jaso: 2010.01.29
Onartu: 2010.10.05

XIX. mendearen azken laurdenean argitaratu ziren legenda jakin batzuk euskaldunaren identitateari atxiki zizkioten ezaugarriak aztertu dira. Kontatu zituzten istorioak legendazko lehen aldi edo lehen aldi historiko urrunean kokatu zituzten legendak hautatu dira, VIII. mendea mugarri jarritz. Azterlanaren ondorioak bi dira. Bata, Aitor Aitalehenak eratu zuen euskaldunaren identitateari eutsi egin ziotela honen ondorengoek; bestea, legendok, idazketaren garaiko ikuskeratik, XIX. mendearen azken laurdeneko ikuskeratik, berreraikitzen dutela beren kontaketatara daramaten lehen aldia.

Giltza-Hitzak: Giza komunitatea. Aurkakotasuna. Bereizi. Identitatea. Aitalehena. Erabakitzeko ahalmena.

Se analizan las características atribuidas a la identidad vasca por determinadas leyendas publicadas en el último cuarto del siglo XIX. Se han escogido leyendas cuyos relatos remontan a un pasado legendario o a un tiempo histórico remoto, estableciéndose como límite el siglo VIII. Dos son las conclusiones del trabajo. Por una parte, los sucesores del Patriarca Aitor mantuvieron la identidad vasca por aquél constituida; por otra, estas leyendas reconstruyen el pasado que llevan a sus narraciones desde la mentalidad del tiempo en que fueron escritas, la mentalidad del último cuarto del siglo XIX.

Palabras Clave: Comunidad humana. Oposición. Separar. Identidad. Patriarca. Poder de decisión.

On analyse les caractéristiques attribuées à l'identité basque par certaines légendes publiées dans le dernier quart du XIX^{ème} siècle. On a choisi des légendes dont les récits remontent à un passé légendaire ou à une époque historique lointaine, en établissant le VIII^{ème} siècle comme limite. Il y a deux conclusions à ce travail. D'une part, les successeurs du Patriarche Aitor maintinrent l'identité basque qu'il avait constituée; d'autre part, ces légendes reconstruisent le passé et conduisent leurs narrations depuis la mentalité de l'époque où elles furent écrites, la mentalité du dernier quart du XIX^{ème} siècle.

Mots-Clés : Communauté humaine. Opposition. Séparer. Identité. Patriarche. Pouvoir de décision.

Antoine d'Abbadieren mezenasgopean eratutako "Lore-Jokoak" mende laurdena betea zutenean, Jose Manterolak bultzaturik Donostiako Udalak Donostiako euskal festei eman zien hasiera. Ospatu ziren lehen urtean, 1879.ean, "euskal izkribatzalleen bilkida, bertsolarien josta-guda, eta chistu-soñularien leia" antolatu zuten: idazleen arteko norgehiagokari, bertsolarien artekoa batetik eta, txistulariena bestetik, gehituz osatzen zen egitaraua.

"Izkribatzalleen bilkida" k, modalitate desberdinak saritzen ditu. Modalitate horietako bat legenda da. Sorreratik bertatik "kondairen baten ezagualde labur bat, irakurgai bat, edo gure oitura oroitzagarriren baten gañean ongien izkribatzen duenari"¹ sarietako bat atxikitzen zaio.

Lehiaketaren oinarriak euskaraz eta gazteleraz eman zituztenean, 1880. urtetik aurrera, euskarazko "irakurgai" hori "tradición ó leyenda" legez itzuli zuten. Berez, legendan, historian, naturaz gaindiko indarretan, ohiturazko koadroetan... aurkitu zituzten beren kontaktak mamitzeko langaiak legenda egileok.

Ez dago originaltasun bila joaterik kontatu zituzten istorioetara. Gehienak ezagunak ziren, dela ahozko munduan jada kontatutakoak edo kontatzen zirenak izateagatik, dela aurretik erdaraz idatziak zeudelako. Alabaina, betiere, bada alderdi originalen bat; batzuetan, ahozkotasan hutsean bizi zen istorioa idazketara igarotzen delako izango da; bestetan, euskaraz lehenbiziko aldiz emandakoa izateagatik, nahiz eta, behin edo behin, itzulpen hutsari lotu. Jakina, istorioa ahozko mundutik idatzizkora eramaten duena ez da mugatzen entzundakoaren transkripzio soila egitera, ezta erdaraz zegoena euskaraz jartzen duena ere, hitzez hitzeko itzulpena egitera. Gainera, praktikan euskal kontaktari hasiera ematen ari dira. Aitzindari izateari darion meritua erantsi behar zaie; izan ere, nekez izan zezaketen Juan Perez de Lazarragaren eta honek eskuizkribu batean utzitako artzain-eleberriaren berri. 2004an aurkitutako eskuizkribu horri esker XVI. mendearen hirurogeigarren urteetan euskaraz kontaketa landu zela erakutsi daitekeen arren, XIX. mendearen azken laurdeneko legenda egile hauek horrelakorik izan zenik ere ez dakite. Gehienez ere, autu eta alegia batzuen albistea izan zezaketen eta euskaratu berri samarra zen eleberri batena, Jean Baptiste Dasconaguerreren *Atheka gaitzeko oihartzunak* (1870) eleberriarena, hain juxtu.

Beraz, koordenada narratiboen gain eraikitzen diren testu-modalitateek, euskaraz hain lantze urria izan dutelarik XIX. mendearen azken laurdenera arte, biderik egin gabeko lantegi batean jardutearen ardura beren gain dute.

Esan bezala, legendan, historian, naturaz gaindiko indarretan, ohiturazko koadroetan... aurkitu zituzten langaiak. Legenda hauek euskaldunaz eman

1. *Euskal izkribatzalleen indar-neurtzea, 1879ko Agorrillaren 7garren egunean Donostian eguina orretarako artu diran prestamen, eta sarizatuak izan diran izkribu-antolamenduen oroitzua.* Donostia: Antonio Baroja-ren moldizkira, 1879; 6. or.

zuten irudia aztertzeko corpus mugatu bat hautatuko da: kontatutako istorioa Euskal Herriaren sorreratik VIII. mende arteko tartean kokatu zuten legendek osatuko dute aztergai bihurtutako corpusa. Hartara, kontatutako gertaerak lehen aldi urrun horretan lekutu zituzten legendek euskaldunari atxiki zizkio-ten ezaugarriak zehaztea izango luke xede txostenak. Zehazki, sei egile desberdinek idatzitako bederlatzi legenda aztertuko dira, euskaldunaz eratu zuten irudia atzematea jomuga. Egileak zein hauek kontatutako istorioen jazoera-garaia desberdina izan arren, nortasun-marka berberetz jantzi zuten euskalduna: Aitorrek Euskal Herria sortu zuenetik, mairuak Iberiar penintsulan barrena zabaldu ziren arte, euskal komunitatearen ezaugarriak bere horretan dira.

Jadanik aditzera eman denez, legendarik gehienek kontatutako istorioak ezagunak ziren. Aztergaia osatzen duen corpusean badira XVI. mendeaz gero ezagutzen zirenak, garai honetako historia egileen obretan egin zutelako agerrera. Beraz, historia dute lehen bizileku eta gaztelania lehen adierazpen-hizkuntza.

Historiaren barrutik at eta erdararen bat adierazpen-hizkuntza izanaz, legenda egile hauek beren istorioak argitaratu aurretxoan ere, Euskal Herrian bertan, Agustin Xahok, Jose Maria Goizuetak, Juan Venancio Araquistainek, Vicente Aranak, Antonio Truebak, Francisco Navarro Villosladak... egina zuten Antzinateko bidaia. Bidaia horretan aurkituta zeuzkaten legendotan biziko diren pertsonaia heroikoak, XVI. mendean landutako historia iturri eraikiz, nahiz irudimena bide pertsonaia berriei bizitza emanaz.

Ez zen kasualitatearen fruitu izan erdaraz idatzi zuten idazle hauen aurkikuntza. Izan ere, mugimendu erromantikoaren hauspoak bultzaturik, bereizirik zegoen hura atzeman nahi izan zuten.

Gizabanako edo giza talde mailan bereizirik dagoenaz jarduteak erakartzen ditu erromantikoak². Herder-ek 1767rako adierazia zuen, bere izaera berezia duela herri bakoitzak. Zeinahi nazioaren izaera berezia bere herriaren espirituan azaltzen da. Izaera berezi hori herri horren ohitura, erakunde, arte eta literatur idazlanetan adierazten da eta, bere baitan du balioa.

Ezaguna da erromantikoek berebiziko lilura sentitu zutela iragandako denborez. Giza komunitate baten izaera berezia zedarritzeko aukera aproposa eskaintzen zuen lehen aldiak. Arestian aipatutako idazleek, legenda edo eleberrri historikoa bide, lehen aldi urruna aurkitu zuten eta bertan zigilu berezi baten eramaile zen giza talde bat: euskaldunak.

2. "El foco irradiante del romanticismo, como el de cualquier otra época, es, en nuestra tesis, el sentimiento individualista (...). Y es este alto grado de individualismo el que nos hace entender, de inmediato, la afición romántica por todo lo que está individualizado, lo que tiene carácter, lo que posee 'color local'". BOUSOÑO, Carlos. *Épocas literarias y evolución. Edad Media, Romanticismo, Época Contemporánea*, I. Madrid: Editorial Gredos, 1981; 27. or.

Hala, lehen aldiaren azterketa, historia egilearen eginkizun ez ezik, literatura egilearen eginkizun ere bihurtzen da. Jakina, ez da literatura egilearen egitekoa lehen aldi horren berri modu zientifikoan ematea, baizik eta modu literarioan. Gardentasunaz, erabilitako metodoaren zorrotasunaz... galde dakioke historia egileari, ez horrela literatura egileari: mintzaira eta metodo desberdinak darabiltzate.

Iragan denboren azterketa historia egileen lana izana zen, orain, historia egilearenaz gain bada literatura egilearena ere, beste mintzaira-modu batez baliatuz, noski.

XVI. mendean historiarekiko interesa oso nabarmena izan zen. Bazegoen horretarako arrazoirik; izan ere, herri baten lehen aldiaren ezagutza sakon eta zabaletik zetorren orain aldiaren ezagutzarik egokiena. Orain aldirako dituen onurengatik erakartzen ditu historiak: historia beharrezkoa da herri baten ospea eta ondra garaikide dituen herrialdeen ordenan kokatzeko. Estatu modernoan sorrerak berak indartzen du lehen aldia aztertzeko gogoia eta beharra.

Azken batez, Aro Modernoan garatzen den sentimendu aberkoiak historia-rekiko interesa pizten du, herri baten ospea eta ondra iraganetik orain aldira egindako ibilbidearen baitan dagoela uste dutelako. XVI. mendeko Hego Euskal Herriko historiak Tubalek sortutako herri aske baten berri eman zuen:

Un tema directamente conectado con el mito fundacional del tubalismo es el de la independencia originaria. O dicho en otros términos, el “no haber sido conquistados por nadie”, circunstancia que explica la ininterrumpida independencia de los vascos, a partir de la primera población, frente a todos los pueblos, y singularmente frente a los romanos, godos y árabes. Todos comulgaban con la tesis, que sufría sin embargo el quiebro de continuidad de la dominación romana, obstáculo que se salva mediante la asimilación de los vascos a los cántabros³.

Zinez, XVI. mendeko historiei ezin eska dakieke zorrotzasunik gaiaren azterketan. Garai hartako historia zientziatik baino sorkuntza artistikotik hurbilago dago. Bistakoa da, orduetik hona, nahiz literaturari buruzko ikuspegia, nahiz historiografia asko aldatu dela. Literaturari bere baitan xedea izatea galdetu zaio; historiari, berriz, zientzian oinarritzea. Ondorioz, elkarrengandik urrutiratzen joan dira; baina, XVI. mendean, historia, literatur genero bat gehiago zen: estiloak, esateko moduak, kontatzeko moduak; esaten zenak, kontatzen zenak beste garrantzi edo gehiago zuen.

XVI. mendeak historiagatik erakutsitako interesaren lekuko dira, besteak beste, Juan Martínez de Zaldibia Batxillera, 1564. urte aldera *Suma de las cosas cantábricas y guipuzcoanas* idatzi zuena, Esteban de Garibay, beste zenbait obren artean, *Compendio Historial* (1571) baten egilea, edo XVI.

3. MONREAL ZIA, Gregorio. “Larramendi: madurez y crisis del régimen foral”. In: LAKARRA, Joseba Andoni (Ed.), *Manuel Larramendi hirugarren mendeurrena. 1690-1990*. Andoain, 1992; 106. or.

mendearen bigarren erdian idatzi zen Iburguen-Cachopin-en kronika. Historia egileok “vasco-cantabrisimo” deitu teoriaren jarraitzaileak dira, legendari edo fantasiari egindako tarte zabalago edo meharragoarekin.

Nahiz eta hurrengo mendeko historiaren batek, zehazki, Arnaud Oihenartek moldatu zuen historiak –*Notitia utriusque Vasconiae tum Ibericae tum Aquitanicae...* (1638)– kantabrisimoaren mitoa apurtu, mito horrek iraupen luzeagorik eskuratu zuen: XVIII. mendean, adibidez, Manuel de Larramendi kantabrisimoaren mitora itzuli zen. Baita Herri Adiskideen Elkartearen ere.

Ez da hau historiaren historiak jarduteko lekua, ezta ere, eztabaida historiografikoetan murgiltzeko tokia, baina legendek nola planteatu zuten nazio-identitatea atzemateko lagungarri izan daitekeelakoan, aipu bat:

Oihenartentzat Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba ez dira sartzen antzinako “Cantabria” lurraldean. Moret historialaria ere Oihenartekin bat zen. Baina “Cantabrisimo-aren” mitoak, dogma historiko gisa funtzionatu zuen Aro Berrian Euskal Herrian. Erresuma absolutisten boterea eta indarra sendotu hala, (sic) komunitate txikiek kontserbatzen zituzten autogobernatzeko eskubideak zalantzetan jarri ziren. Euskal komunitateek jatorrizko independentziaren teoriarik finkatzen zuten bere eskubidea eta kantabrisimoa erromatarren nagusitza erabat ez zela gertatu frogatzeko zegoen. Beraz ez zen eztabaida historiografiko hutsa⁴.

Hona helduta bi puntu nabarmendu nahi dira; batetik, XVIII. mendeko historia egileek kantabrisimoaz egindako defentsaren oinarrian, arrazoi historiografikoez harantz, arrazoi politikoak egon daitezkeela; bestetik, XIX. mendean zehar Euskal Herrian egindako historia berritu, nola ez, XIX. mendearen azken laurdenean argitaratutako legendetan kantabrisimoak bizirik dirauela.

XIX. mendearen azken laurdenean legendak argitaratu zituzten egileen eta XVI. mendeko historia egileen arteko lotura oraindik estuagoa da. Ez da mugatzen kantabrisimoaren teoriarik oinarritzen jarraitzeari; harago doa: historia egileak eta legenda egileak bat datoz kontatutako hainbat gertaeratan. Esaterako, Iburguen-Cachopinen kronikak jasotzen duen “Kantabroen Kantak” –edo “Leloren Kanta” deitu izan denak– kontatzen dituen jazoeratan oinarritzen da Franziska Ignazia Arrueren “Euskaldunen bikaiñtasuna” legenda. Baita Joakin Larreta Azelaingoaren “Irakurgaia” ere.

Iburguen-Cachopinek bezala, Arruek kontatzen du Octavio Augusto Erromako enperadorearen soldaduek euskaldunak, kantabriarrak, menderatzea lortzen ez zutelako, azkenean, erabaki zutela norgehiagoka baten bidez auzia konpontzea. Erroman hirurehun euskaldun, kantabriar, eta hirurehun erromatar neurtuko ziren, askatasuna jokoan: garaipena euskaldunena baldin bazen, aurrerantzean Octavio Augustok bakean utzi beharko zituen; erromatarrek irabaziz gero, Erromako enperadoaren agindupeko beharko

4. AGIRREAZKUENAGA, Joseba. “A. Oihenarten *Notitia utriusque Vasconiae*: berrikuntza eta eragina euskal historiografian”. In: *Oihenarten laugarren mendeurrena*, Iker-8. Bilbo: Euskaltzaindia, 1994; 647-648. orr.

zuten. Kantabriarrena izan zen garaipena, noski. Larreta Azelaingoaren “Irakurgaia”n istorio berdina kontatzen da, xehetasunetan alderik egon bada-
goen arren.

Goiago esan bezala, XIX. mendearen azken laurdeneko legenda egileak gai desberdinez baliatu ziren beren legendak mamitzeko. Batzuk, legendazko lehen aldi batera nahiz lehen aldi historiko urrun batera denboran atzera eginaz, euskaldun bikainen ekintza entzutetsuak kontatu zituzten. Hautu hori egin zutenean, giza komunitate baten identitatea mugatzeko bitarteko bihurtuz kontaketa, komunitate horren izaera aldarrikatu zuten.

Legendazko lehen aldira edo lehen aldi historiko urrunera jo zutenean, XVI. mendeko historia egileek jada bilduta zituzten zenbait gertaeretan oinarritu ziren. Dena den, historia egileok iturri zuzen edo zeharkakoak izan zitzaizkiren arren, bada alderik batzuen eta besteen artean: historia egileak eta legenda egileak gertaera horietaz emandako bertsioa bat eta bera izanagatik, generoak eta idazketaren garaiak behintzat bereizten ditu elkarrengandik.

Generoak desberdintzen ditu. XVI. mendeko historia egileek historia egitea zuten jomuga eta horrela aurkeztu zituzten beren obrak: benetan gertatu zenaren berri ematea zegokien. Horretarako erabilitako metodoak zorrotzak izan, nola ez, historia legez irakurtzera gonbidatzen dute hartzailea. Ez da beste horrenbeste gertatzen asmatzeko lizentzia daukaten legenda egileekin: fikzioaren erresuman lekutzen dira beren idazlanak. Istorioak kontatzea da beren eginkizuna eta ez historia egitea. Beraz, hartzaileari zuzentzen dioten proposamena desberdina da eta hartzaile horrek jarrera desberdina har lezake testuaren aurrean: historiara hurbil daiteke ikastera; istoriora, berriz, une atsegin bat igarotzera, nahiz eta honek ez duen eragozten bidenabar zerbait ikastea, baina, edozein kasutan, helburua ez da ezagutza zientifiko batzuk norberaganatzea.

Halaber, idazketaren garaiak desberdintzen ditu. Legenda egileak XVI. mendeko historia egileen ildoan kokatu baziren ere, XIX. mendearen azken laurdenetik idazten dute. XVI. mendeaz gero ezaguna zen gertaeraz jardun arren, beren garaitik, XIX. mendearen azken laurdenetik dihardute. Gertaerak ez zuen esanahi bera XVI. mendean eta handik hiru mendera, beste testuinguru batean bizi diren heinean bederen. Beste egoera historiko batean bizi direla nabarmena da, XIX. mendearen azken laurdeneko legenda egileek bigarren gerrate karlistaren ondoren idazten dutelako: amaitu berri-berri da azken foru-galera ekarri duen gerratea.

Hortaz, legendazko lehen aldira edo urruneko lehen aldi historikora begiratzean, galera honek eragindako frustraziotik begiratzen dute. Egin zituzten hautuak ez ziren izan inozoak: aukeratutako kontagaiek esanahi berezia hartzen dute baldintza historiko horietan. Idazketaren orainaldiak eransten dien esanahi bereziaz hartzailea jabe dadin ere nahi dute: bada gonbitik kontatutako lehen aldiko gertaera orain aldirako ikasgai legez jasotzeko.

1. IDENTITATEA⁵

XIX. mendearen azken laurdenetik legendazko lehen aldira edo lehenaldi historiko urrunera egindako bidaiaren ezaugarri bereziak zituen giza taldea aurkitu zuten. Aztergai den corpusaren arabera, bada Aitalehen batek sortutako giza talde bat, lurralde jakina duena bizileku. Giza taldeak Aitalehenak ezarritako balore-sistemari eutsiko dio gizaldiz gizaldi: beste giza talderen batek balore horietakoren bat erasotzen dioenean, aurre egin eta, ez du utziko deusezta diezaioten.

Aitalehenak bere ekintza eta esanen bidez nortasun bat finkatu eta ondorengoak jarraitzaile izango ditu. Aitalehena da identitatea eratzen duena. Semeak eta Ahaideak ditu lehen-lehenik eraketa horren lekuko; gerora, semeak bakarrik. Semeok, txintik esan gabe, lekukoa jaso eta, aurretantzean, belaualdiz belaualdiko iraupena eskuratuko du giza komunitatearen sortzaileak eraturako identitateak, Aitalehenak utzitako eredu orpoz-orpo segituko baitute ondorengoak.

Aitalehenak oposizio⁶ eratzen duen identitatea da, beste entitate batzuegandik aldentzearen ondorioz: entitate horien aukerak ez dute asetzen. Aitalehenaren esan-eginek beste giza talde batzuegandik bereizten dutenez, identitate propioa eraikitzen du. Hala, zein den euskalduna ez ezik, zein ez den ere argi eta garbi geratzen da.

Identitatea “bestearekiko” harremanean osatzen da⁷. Euskaldunena, zeltarrrekiko, Aitorren Ahaideekiko, erromatarrekiko, godoekiko, mairuekiko, erdaldunekiko... harremanean itxuratuko da legendotan barrena: aurkakotasuna bide azaleratzen da. Aurkakotasuna bide azaleratu eta, aurkariak aitortzen duen identitatea da. Alegia, ez da bakarrik euskaldunek beren buruari izaera jakina egosten diotela, bada, baita ere, beste giza komunitate batzuetakoak direnak berretsita egiten dituztela euskaldunek beren komunitatea mugatzeko atxikitzen dituzten ezaugarri bereizleak.

Istorio desberdinek ezaugarri berberak itsasten dizkiete euskaldunei. Ezaugarri horietakoren bat edo batzuk ez dituzte partekatuko euskaldunekin harremanen bat izatera heltzen diren gainontzeko giza komunitateek. Horregatik urruntzen dira elkarrengandik.

5. “Siguiendo a Rosa, hemos de tomar la palabra *identidad* como la capacidad para percibirnos por uno mismo o por los demás como *entidades* con su especificidad propia o, lo que es igual, con una particular forma de ser”. RAMÍREZ, Juan-Daniel. “Constitución Literaria de la Identidad Nacional. El caso de Argentina”. In: ROSA RIVERO, Alberto; BELLELLI, Guglielmo; BAKHURST, David (Eds.). *Memoria colectiva e identidad nacional*. Madrid: Biblioteca Nueva, 2000; 332. or.

6. Ik. APPIAH, Kwame Anthony. *La ética de la identidad*. Buenos Aires: Katz Editores, 2007; 120. or.

7. “La cuestión de la nacionalidad debería definirse, ante todo, como constitución de una identidad en relación al ‘otro’, como un proceso, diríamos, dialógico-diferencial basado en la comparación continua con los que no pertenecen a la propia comunidad”. MOLL, Nora. “Imágenes del ‘otro’. La literatura y los estudios interculturales”. In: GNISCI, Armando, *Introducción a la literatura comparada*. Barcelona: Editorial Crítica, 2002; 358. or.

Euskaldunekin harremanen bat izatera heltzen den giza komunitateak istorio bakar batean baino gehiagotan agerrera egiten duenean, errepikatu egiten dira giza komunitate horri egotzitako ezaugarriak. Esaterako, erromatarrak, istorio desberdinetan, urrez jantziak, sasijainkoak gurtuz, euskaldunen lurra inbaditu nahian... aurkeztuko dira... edo mairuak, inbaditzaile moduan, kristau sinesmenik gabeko moduan...

Hitz batean, istorio desberdinak gainezartzen badira, nabarmena da identifikazio-ezaugarri berberak atxikitzen dizkiotela giza komunitate bakoitzari.

Legenda hauek kontatzen dituzten istorioetako subjektua euskalduna da. Behin Aitor Aitalehenaren jatorritik euskalduna sortu zenez gero, honek hartzen du protagonismoa. Ez da izen berezidun euskaldunik falta legendok kontatutako istorioetan, batik bat agintariak dira ezaugarri horren jabe izatera heltzen direnak, baina agintariok bozeramale huts bihurtuta datoz: euskaldunen ordezkari legez hitz egiten dute.

Berez, legendotan aurkezten den euskaldunaren nortasuna, Aitor Aitalehenak irudikatutakoa da. Erromatarrak, godoak, mairuak, erdalduak... Aitorren heriotzaren ondokoak izanagatik, euskaldunengandik jasoko duten erantzunak Aitalehenarengan du jatorria: Aitalehenak sortutako giza komunitatearen ezaugarriak erasoetatik babestera mugatzen dira ondorengoak. Aztergai den corpusak erakusten du izateko modu berdinak mendez mende dirauela, denboraren igarotzearen eraginari ihes eginaz: VIII. mendeko euskaldunaren izateko modua Aitorren berbera da. Legenda bakoitzak kontatutako istorioa aitzakia baino ez da hastapenetako identitatea berresteko. Istorioa aldatzen da, ez horrela, istorioaren protagonistak; izan ere, euskaldunek, irudi berbera proiektatuz jarraitzen dute.

1.1. Menditar / ez menditar

Karmelo Etxegarairen “Aitor-en etorrera edo Euskal Erriaren asiera” legendarentzat izan zen 1882ko Donostiako euskal festek modalitate honetan emandako ohorezko aipamena. Bistakoa denez, ordurako ezaguna zen Aitor Euskal Herrian, hamarkada batzuk lehenago Agustin Xahok emana ziolako bizitza. Xahok mamitutako Aitalehena beste idazle batzuen idazlanetara ere igaro zen, hala nola, Francisco Navarro Villosladaren *Amaya o los vascos en el siglo VIII* (1879) eleberrira. Eleberri honetako Amagoia pertsonaiak hildete gau batean arparen laguntzaz errezitatutako kontaketa baten itzulpen libre samarra da Karmelo Etxegaraik lehiaketara aurkeztu zuen legenda.

Aitorren jatorria Ararateko mendietan dago. Hortxe gelditu zen Noeren Kutxa uholdeak eragindako urak jaitsi zirenean. Beraz, XVI. mendeko historia egileek aurkitu zuten Tubal Aitalehenak bezala, jatorri biblikoa du Aitorrek. Jatorri biblikoa duen leku horretatik, “beren biotzeko deadarrei oartu edo eranzunaz, irten ziran gure asabak sart-aldeko lurra berriro jendez

betetzera”⁸. Lehenik, Kaukasopea izan zuten bizileku, baina bidaia ez da amaituko Auñemendira heldu arte. Auñemendira heltzean, “Gerenganatu ditzagun mendi oek, eta ez gaitean irten beñere beren artean dauden ibarretatik” (152. or.) esanaz zuzendu zitzairen Aitor bere semeei eta hauek “berezitu zituzten mendi aen sartaldeko lurrak, zazpi puska egiñaz, eta seme bakoitza puska bategaz jabeturik” (152. or.), bertan kokatu ziren. Horrela, Aitor lurralde baten jabe egin zen, inoiz inork zapaldu gabeko lurralde baten jabe, hain zuzen ere: “Lur ontan, beñere ez du gizonak ipiñi bere eskua” (153. or.). Lurralde hau da bere ondorengoei utziko diena.

Mendian sortu zuen Aitorrek Euskal Herria eta aurrerantzean mendia izango du bizileku euskaldunak: menditarrak dira. Aitorren ondorengoak, bizileku dituzten mendien ezagutzaile apartak, inguruneari erabat egokituta, trebeki gobernatzen dira bertan. Hain da hala, menditarrak ez direnak ezin izango dituztela menperatu.

Euskaldunak menditarrak dira, erromatarrak edo godoak ez bezala. Horregatik erromatarrek edo godoek ezin dituzte menperatu euskaldunak. Erromatarrek aitortu eta guzti egiten dute euskaldunek bizileku dituzten mendiak ezin beregana ditzaketela. Franziska Ignazia Arrueren “Euskaldunen bikaiñtasuna” legendan kontatzen denez, Erromako enperadoreak mandatari bat bidali zuen euskaldunengana, honako proposamenarekin:

Zuek, mendi oiek dirala bide eta bazter oietako berri ongi dakizutelako, alde oetan azpiratzen gaituzute, baña benturatuko ziñateke lur zelai edo ordekan gurekin eskuetaratzera? (70. or.).

Berdin gertatzen zaie godoei. Karmelo Etxegarairen “Andeka” legendako kontalariak dioenez, mendian garaitezinak dira euskaldunak; ordekan, berriz, eragozpen gehiago dute:

Bi edo iru eunki baziran, Euskaldunak, Españiako nagusi ziran Godoen kontra gerran ari zirala. Eziñ bukatu zan gerra gogor ura, zergatik, baldiñ Euskaldunak garaiatuak izaten baziran noiz edo noiz, zelai-landetara jatxitzen ziranean, etzan munduan beren mendi goietan aek azpiratuko zituen indarrak (156. or.).

Beraz, mendia sorleku izan zuen giza komunitateak menditarrak ez diren giza komunitateak garaitu egiten ditu. Menditarra da euskalduna eta bere habitata sakon ezagutzen duelako babes ditzake mendi horiek arrotzaren era-soetatik. Horregatik, inoiz inork menderatzea lortu ez duen bizileku batean bizi da euskalduna.

8. ETXEGARAI, Karmelo. “Aitor-en etorrera edo Euskal Erriaren asiera”. In: TOLEDO, Ana M. (Ed.). *Lelegendak (1879-1891)*. Donostia: Etor, 1990; 151. or. Aurrerantzean, zeinahi legendetatik jasotako aipamena liburu honetatik hartuta egongo da eta orrialdearen erreferentzia besterik ez da emango. Bukaeran lehenbiziko argitalpenaren erreferentzia bibliografikoak bilduko dira.

1.2. Bakea / gatazka, liskarra

Esan bezala, Aitorrek bihotzeko deiadarrari erantzunaz hasten duen bidaiak Kaukasopea du lehen helmuga. Bihotzeko deiadarrari erantzutea baino arrazoi zehatzagoren batek aginduko dio bideari berriro heltzea. Zerbaitek bereizten du Aitor inguruan dituenetatik. Bereizgarri horrekin hasten da identitate bat eratzten: bada zerbaite beste batzuekin partekatzen ez duena. Nahi mugatu bat, bakean bizi izatea, da berriro bidaiari bihurtzen duena. Izan ere, Kaukasopean luzaroan zoriotsu izan ostean,

[...] ikusirik Aitor gogoangarriak beren auzoko zeltarrak zutela aien garau eder ugari eta aberetalde aundien gutizia, eta orrengatik egiten zituztela litxarrerri ta txarkerri asko (151. or.),

aurre egingo dio egoerari. Aberastasun guztien gainetik bakean bizi izatea jomuga, lur aberats horietatik dendak altxatu eta, lurralde berri baten bila abiatzen da.

Horra Aitorren leinua zeltarrendandik bereizten duen ezaugarria. Bakea eta aberastasunaren arteko lehian, bakea hautatzen du Aitorrek; zeltarrek, berriz, halako atxikimendua diote aberastasunari, lapurretara jotzeak ere ez dituela arduratzen. Aitorrek argi eta garbi adierazten du Kaukasopea uzteko arrazoia:

–Seme maiteak: ez dago emen guda ta deserakidak besterik. Aberatstasun danak baño gozoagoa da pakea. Billa dezagun bada, utzirik ortarako lur ugaritsu eta loretokiak (151-152. orr.).

Kaukasopetik irten eta Akitaniara iritsi ziren. Behin Akitanian, bakeak Aitorren helburu izaten dirau. Hala adierazten du bidea jarraitzeko bakearen sinboloa den hegazia gidari hartu izanak; ipar aldetik datozen usoek daramaten norabidean egingo du aurrera:

Goazen ikustera non gelditzen diran egazti oriyek; berak etzaten diran tokian, etzango gera; berak lo egiten duten lekuan, egongo da zoriontasunaren kabia (152. or.).

Usoak bide erakusle zituela, Auñemendira heldu zen Aitor. Mendi hauen mendebaldeko lurrez jabetu ostean, zazpi semeen artean banatu zuen.

Aitorren identitatea osatzen duen ezaugarria da bakezale izatea: horra hor zeltarrendandik bereizten duen ezaugarria.

Aitalehenaren identitateari eutsiz, honen ondorengoek ere bakean bizi nahiko dute. Arturo Kanpionen “Agintza” legendako Aitor pertsonaiak, Pelaiori, Kantabriako dukeari, esaten dioenez, “guk ez degu deus ere eskatzen, ezpada pakean mendi santu oetan (...) bizitzeko baimendua” (146. or.). Lehen pertsona pluralaz baliatzen da Aitor pertsonaia, giza talde baten izenean hitz eginaz: euskaldunen eskaria helarazten dio Kantabriako dukeari.

Altabizkarreko gertaeren garaian ere, Franzisko Lopez Alenen “Antziñako Nafar-mendiko oroitz bat” legendaren arabera, bakean bizi izatea gura dute euskaldunek. “Aurrera mutillak” deiadar eginaz, “Karlo-Man”en gudarosteari aurre egiteko agindua eman zuenaren biloba Mari, etxola batean bizi da “pake-pakian, munduko izate andiak baterere gogoratu gaberik” (246. or.).

1.3. Aberastasunik eza / aberastasuna

Bake bila abiatzen da Aitor Kaukasopetik. Kaukasopean zituen aberastasanak zeltarren eragindako gutziak sortutako liskarrak dira lur aberats horiek uztea gomendatzen diotenak. Auñemendin delarik, uko egingo dio lurralde aberatsago batera joatea jomuga duen bidaia berri bat has-teari. Aitorren leinuak bereganatu zuen lurraldearen ondokoaz jabetu ziren Ahaideengan ernetzen da proposamena; izan ere, ikusita usoek lo egin eta joan egiten direla, usooi jarraituz hego alderantz jotzeko asmoa azaltzen dute Aitorren Ahaideek:

Ikusten ditugu Eguara, laba aundi erribera ugaritsuak diruditenak. Oneraño iritxitzen da beretako usai eder garbia. Goazen ibai oietako ura edatera, goazen baso usaitu oetako garauak jatera; goazen eguerdi aldeko lur ugaritsuak menpe-tuzera (152. or.).

Aitor ez zaie batzen. Aitorrek, orain, askatasun-faltarekin lotzen du aberastasuna. Aitalehenaren esanetan, mendia bizileku izateak, aberastasunik eza, bakea eta askatasuna daramatza berarekin; aitzitik, lautadek, menpe-razileak erakartzen dituzte aberatsagoak direlako, bakean bizi izatea gara-ziz: zeltarrek Kaukasopean sortutako “guda eta deserakidak” lekuko.

Bere Ahaideek hartutako erabakiak identitate-ezaugarriak harremanetan jartzeko aukera emango dio Aitorri. Aurkakotasunaren alde batean, elkarren eraginpean aurkezten ditu “aberats” eta “menpeko” izatea; beste aldean, “pobre” lokaberi uztartzen dio:

–Laga zaiozute joaten –esan zuen Aitor-ek– eta ez jardun gaizki esaka nik egin dedan esleitzagatik. Nai dezute izan aberats, iñoren mendean egoteko? Jarraitu berei; zabaldu zaitezte landa loretsu oetan. Nai dezute izan lokabe, naiz mundu guztia zuek aztu? Geldi zaitezte mendian (153. or.).

Gisa honetan Aitor bereizi egiten da zeltarrendandik eta bere Ahaideengandik. Baita Aitorren leinua ere, semeek Aitalehenaren esanarekin bat egingo dutelako.

Lokabe izatea aberastasanari lehenesten dioenez, heriotzako ordua ailegatzean, oinordekoei utzitako ondasunen altxorra lan eginaz bizimodua aurrera ateratzeko aukera soilera murriztuko da:

Ekarri ditudan aberastasanak, lurpean daude; bakarrik laga nai dizutet nere izen onraduna, ta arkaitz arte auek, beretan lan eginaz, zorionekoak izan zaitez-ten (154. or.).

Aitorrek atxikitako ezaugarri bereizleari eutsiz biziko dira honen ondorengoak: Auñemendiko bizilagunak ez dira aberatsak.

Arturo Kanpionen “Denbora Antxiñakoen Ondo-Esanak” legendan, aingeruak erakutsitako eszenan ikusten denez, erromatarren eta euskaldunen jantzi eta armek islatzen dute aberastasun-mailan batzuk eta besteek daukaten aldea:

Agurearen aurrean, Erromatar gerrari bat beste askoz ingurutua, zegoen zutik, beren urrezko arma eta lantzak diztiazten zutela. Gizon arrotz aiek, beren jantzi eta arma baliotsokin Erregeak ziruditen Euskaldunen ondoan (125. or.).

Aurreraxeago Begaiñ Arrakill euskal agintariak ideia hau berau azalduko du xehetasun gehiagorekin, bilduta dauden euskaldunen aurrean:

Gu, Erromatarren agintepean jarri ezker, izango gera txit zorionekoak, mandatarriak dionez. Gaur bizi gera basurdeen gisan mendietan, bigar biziko gera aberats eta aldunak urietan; gaur larruz jantziak gabiltza, bigar ibilliko gera sedaz ederki apainduak; gaur txaboletan bizi gera, bigar jauregietan; gaur jakiñezak gera, bigar jakintsuak. Sar gaitezen bada urrezko kaiol orren barruan! (127. or.).

Halaber, Franziska Ignazia Arrueren “Euskaldunen bikaiñtasuna” legendan, euskaldunak Octavio Augusto enperadore erromatarren gudarosteari aurre egiteko tenorean daudenean, euskaldunen agintariak janzkerak aurkajartzen ditu lehenik, metalak jarraian, batzuen burdina eta besteen urrea balore arras desberdinen agerkaritzat joaz:

Iberriako menditarrak laster egingo dute erromatar erkindu oriekikoa. Oriek urrez jantziak daude; gu berriz ardi-narruz estaliak. Gure mendietan burnia baidzik ezta. Burniak sendotasuna, indarra, biotz errutsua eta balorea, senestatzen eta aditzera ematen ditu; urreak berriz atsegiñ-kontentuak, apañdura, eta aragjaren gozamina begietaratzen ditu; urreak gizon saldu eta saltzalleak erosten ditu; urreak palsia, bildurra, erkindadea eta saldukeria piztutzen ditu (66-67. or.).

Lerro batzuk beherago, erromatarren agintari nagusiaren oihuari erantzunaz, ideia berbera errepikatuko du euskaldunen agintariak, aberastasuna oraindik kalte gehiagoren eragiletzat aurkeztuz:

[...] eta tirano ari esan zaiozu, gu erromatar galgiroti eta atsegin kontentu zaleak ezkerala, ezpada menditar urriti eta gere pobrezan naierara bizi geranak (68. or.).

Aberastasunaren aurretikoak ziren Aitorrentzat bakea eta lokabe izatea. Aitalehenak aberastasuna gaitzen eragile legez atzematen bazuen, gaitzon zerrenda handituz doaz ondorengoak: aberastasunak diren eta ez diren grina guztiak pizten ditu.

Aitorren garaian bezala, menditarrak, pobreak, askatasun zaleak izaten jarraitzen dute euskaldunek erromatarren garaian. Aitalehenaren egunetan zeltarrekin eta Ahaideekin muga ezartzen zuten ezaugarri hauek, orain, erromatarrekin ere ezartzen dute.

Ezaugarriok eraikitako mugak beste giza komunitate batzuegandik bereziko du euskalduna, ibilbide historikoan aurrera egin ahala. Altabizkareko gertaeren garaian, “Aurrera mutillak” deiadar eginaz, “Karlo-Man”en gudarosteari aurre egiteko agindua eman zuenaren biloba Mari, etxola batean bizi da “pake-pakian, munduko izate andiak baterere gogoratu gaberik” (246. or.), Franzisko Lopez Alenen “Antziñako Nafar-mendiko oroitz bat” legendan kontatzen denez. Aitorrek hobetsitako balore-sistemak indarrean dirau.

Mairuen aurkako gerrateak iritsi zirenean ere, ez zen egon aldaketarik. Karmelo Etxegaraiaren “Andeka” legendako koblariaren kantan euskal komunitatea beste giza komunitate batzuei aurkajarriz aurkezten da, errekurrenteak diren ezaugarritara joz; alegia, beste legenda batzuk kontatutako istorioetan ere azaltzen diren bereizgarriak iteratuz. Askatasuna aberastasunari lehenestea euskaldunen ezaugarri da:

Gozoa, maitagarriya da kabiya txoriarentzat; maiteago du bera, naiz lasto igarrez egiña izan, errege batek ematen dion kaiol urrezkoa baño. Zergatik da ori? Txoriyak lokabe izateko Jaunak egin dituelako. Modu berean, naiago du Euskaldunak lokabea, naiago du bere mendarteetako bizitz aztua, atzerritarrak eman lezaiokean urre uztarriyaren azpikoa baño (160. or.).

Askatasunean bizi nahi dute Aitorren ondorengoek: askatasunari eusteko ausarki aurre egiten diete eurak menperatzera datozenei. Ez dira aberatsak. Pobre izateak bere abantailak ditu: ez dituzte pairatzen aberastasunak eragindako gutizia eta grina txarrak.

Aitorrek semeei utzitako ondarea bere horretan gordeko da sortu zuen herrian: hobe aske besteren mendean bizi izatea baino, nahiz eta aberats izatearen kaltetan izan eta, ondorioz, mundu zabalean inor izan ez.

1.4. Ez inbaditzaileak / inbaditzaileak

Aitorrek huts bat baino ez zuen egin bere aurreikuspenetan. Dena den, honen ondorengoak gogotik saiatuko dira aurreikuspenean egindako hutsak ondoriorik izan ez dezan.

Heriotzaren atarian honela esan zien Aitorrek bere semeei:

Etzaitzete besteen lurak irabaztera joan, eta ez izan iñork mendetuko zaituzten beldurrik (154. or.).

Euskaldunak besteen lurak irabaztera joango ez direnez, lehen aurreikuspena beteko da, ez horrela bigarrena. Jakina, bigarrena ez zegoen Aitorren leinuaren esku. Legendek kontatutako istorioetan ez dira azaltzen euskaldunak besteen lurak indarrez hartzen, bai ordea, euskaldunak menderatzera datozen atzerritarrak. Atzerritarrak heldu ziren aldetik Aitor ez zen igarle izan, baina, azkenean, bere bigarren aurreikuspena ere, bete egingo da: euskaldunak menderatzera etorri zirenek ez zuten eskuratu beren helburua. Hala dio Karmelo Etxegaraiaren “Andeka” legendako koblariak:

Euskal-Eriya sortu zan ezkeroztik, atzerritar asko dira, gure mendiyak garaitzeko ustean etorri diranak. Asko dira, Aitoren semeak uztarri betziztuen azpiyan ipiñi nai zituztenak. Baña nork iritxi zuen bere ustea? Nork uztartu zituen Euskaldunak? Iñork ez, iñork ez: hor daude Hernioko tontorrek, or daude Errezillko ibarrak, Octavianok zituen uste eroak utsera biurtu ziran sinisgaitzat; or daude ere Urbasa-ko arkaitzak, or Gorbeya gaindua; beren gañean Godoen orporik senti etzutela esanaz. Etorri ziran; baña Euskaldunak, (...) jarraitu zietenan, iges egin zuten ariñ (...). Zer? Uste zuten gizon arro aek, añ erraz ateratzen zirala gure erriko aritzak? Etzekiten, nonbait, aritz oen sustraiyak, barruan, guztiz barruan daudela (160. or.).

Ez hori bakarrik: Aitorren ondorengoez zinez uste dute inoiz inork ez duela lortuko euskaldunak menperatzerik. Franziska Ignazia Arrueren “Euskaldunen bikaiñtasuna” legendan, erromatarren garaiko euskal agintari batek dioenez:

Etorriko da Mesias agindua, ilko da, igaroko dira gizaldiak, igaroko da erromatarren erria, Kartagotarrena igaro zan bezela; sortuko dira erri berriak, eta oriek ere igaroko dira; baña gure erriak sekula guzien azkeneraño iraungo du (66-67. or.).

Euskaldunek ez dute erasotzen, erasoei erantzun baino. Berez, euskalduna oso abegitsua da kanpotarrarekiko: bera menperatzera datorrenari bakarrik egiten dio aurre.

Esaterako, Franziska Ignazia Arrueren “Euskaldunen bikaiñtasuna” legendako Aitzondo pertsonaiak erromatar bat gonbidatuko du bere etxean afaltzera. Aitzondoren “Esadazu, arrotza: nortarra zaitugu zu, gure mugak igaro eta bazter oietara sartzeko ausardiya dezun ori?” galderak,

Erromatarra naiz o euskalduna! Zuen lan eta azaña andi arrigarrien otsa Italiaraño eldu zan, eta onelako gizon bulardetsu portitzak ematen dituen zuen lur paregabea ikusteko zalez nator” (65. or.)

erantzuna jaso ostean, euskaldunaren gonbita dator: “Arrotza, ordu onean atoz: nere emazteak apari-mokadua eta alabak oi txuri garbia prestatuko dizkitzue” (66. or.).

Legenda berean, euskaldunen gesten berriek eragindako mirespenak euskaldun horiek ezagutzera eraman duen arrotz horri, honela mintzo zaio orduko euskal agintari nagusia:

Ondo, Erromatarra, gure egitekoa arrotzai arrera ona egitea da; zuk zerea egizu, Octavioren soldadu-samaldai laguntzera joanaz, edota gure mendietan gure artean gera zaitte, eta gure anaitzat idukiko zaitugu (67. or.).

Kanpotarrari harrera ona egitea euskaldun guztiek partekatzen duten ezaugarria da. Erromatarren garaian ez ezik, baita beranduago ere. Arturo Kanpionen “Agintza” legendan, adibidez, Pelaiok, Kantabriako dukeak, gauez Aitor pertsonaiaren etxean atea jo zuenean, atea irekitzeko agindu zion Aitorrek errainari:

Jaungoikoari onesten etzaio iñork euskaldunen atean alferrik jotzea (145. or.).

Abegitsu izatea ez da bakarrik Aitor pertsonaiaren ezaugarria. Giza talde osora hedatzen da ezaugarri hori: euskaldun guztiak dira abegitsuak.

Atzerritarrak Euskal Herria indarrez hartzera datozenean, ordea, borrokara joango dira, lokabe bizi izaten jarraitu nahi dutelako. Hainbestearino maite dute askatasuna, gudarosterik indartsuenaren aurrean ere jarkitzeko gai direla. Erromatarrek, kasu, eginahalak eginda ere, ez dute lortuko euskaldunak, kantabriarrak, menderatzea, aipatu Franziska Ignazia Arrueren “Euskaldunen bikaiñtasuna” legendan kontatzen denaren arabera:

Kantauriarrak! oi u egiten du erromatarren agintari nagusiak. Octavio Augusto andiaren izenean erregutzen dizuet, ixill-ixillik, eta iñolako apuko gabe nere eskue-tara eman, eta jarri zaitezela erromatarren lagun, soldadu eta gerrari (68. or.).

Erromatarren gonbitak erantzun bizkorra jasoko du:

Sekulan ere, eranzuten dio euskaldunen agintari nagusiak; sekulan ere adi-tuko etzaitugu. Baizik eta irten zaite ariñ eta laster guk gere gerea degun, eta beste iñork onekiñ ikustekorik ez tuen lur onetatik (68. or.).

Euskaldunena izango da garaipena. Erromatar banaka batzuk besterik ez ziren atera bizirik bataila-eremutik.

Etorriko da, aurrerago ere, erromatarren asmo berbera zuen gudaroste berririk. VIII. mendearen amaiera aldera “pentsa omen zuten Erroma aldeko erdaldun gudari indar beteak, Españira etorri eta menderatzia, zer uste dezute?... Euskaldun erri guztiya...!” (248. or.) dio “Karlo-Man” buruzagiaren gudarostearen aurka jardundako euskaldun baten bilobak, Franzisko Lopez Alenen “Antziñako nafar-mendiko oroitx bat” legendan.

Abiyatu omen ziran, gure aldera, Erroma aldeko gudari guztiak; ibilli ta ibilli, joan ta joan (...) alderatu omen ziran Españira, eta baita beren gaiñ artu ere Zaragoza, Jaca eta gure inguruko Iruña ta beste zenbait erri, bañan sarri argatikan, irten bihar omen zuten, eta ontarako gogoak eman omen zioten Euskaldun eritikan biurtzia, autsi-urratubaz topoz egiten zuten guzia (249. or.).

Emaizta honakoa izan zen: “Erromatarrak euskaldun lurrera alderatu ziran, bañan sartu ziranak etziran geiago biurtu beren jaiot-errira” (249. or.). Erabateko garaipena eskuratzeak ikasgai bezala ere balio izan omen zuen etorkizunean:

Ordu ezkerro, lurraren jiran bizi dan iñori, ez omen zaio gogora etorri Euskaldunen erria menderatzea (249. or.).

Ez da falta etorkizunari begira egindako eskaerarik: askatasunari tinko eusten dion orain aldiko portaera gorde behar da. Joakin Larreta Azelaingoaren “Irakurgaia”n Lartaun euskal agintariaren azken hitzek, lokabe izaten jarraitzeko aginduz, geroa dute gogoan:

Ez iñon bigundu atzerritarren aurrean; lenago ill guztiok gure jatorrizko lau-buruba ukatu baño. Ez dedilla iñoiz egon beste lau-bururik Emiyoko gañean. Ez dezala iñoiz gizonak buruba makurtuerazo Aitor eta Lekobideren semeei (235. or.).

Era berean, Karmelo Etxegarairen “Andeka”n, mairuen aurkako gudan Andekak eta berarekin joan ziren gehienak bizitza galdu ondoren, kobleriaren kantak itxaropenez dakusa geroa:

Andeka eta bereak ill dira Mairuen kontra gudan ari dirala, gurutzeari laztandurik. (...). Guk ere, bada, Euskaldunak, erakutsi zaiogun Egoi Aldeko lur berotako semeari, Euskal-Erriya irabazkidatuko badu, ez dala aski Andeka eta bere lagunak iltzea, zergatik, udaberriyan zuaitzak ostu mardulez apaintzen diran eran, gure mendiyak mutill gazte bulardetsuz jantziko diran. Euskaldunak, gogor, gogor Mairuai (159. or.).

Giza komunitatearen askatasuna babestea norbere bizitza babesteari lehenesten zaio: ez dago balore-eskala hori auzitan jartzen duen euskaldunik. Askatasunean bizi nahi izateak bataila-eremuan indar eta ausardia guztiarekin borrokatzeaz gainera, beste neke eta sufrimendu batzuk ere eskatu izan ditu.

Gregorio Arruek “Aspaldi aietako gure asabak euskaldunak ziran; gu ere bai omen: ala uste” legendan kontatzen duenez, kantabiarrek bazeramatzaten bost urte Octavio Erromako enperadorearen gudarosteei aurre eginaz. Gertaeron garaian Lekobide buruzagiak baditu ehun urte eta jada ez dauka indarrik besoetan. Janaria urrituz doanez, erromatarren armen ordeztu, goseak azpira dezakeela herria atzematen du Lekobidek. Hernioko tontorrean Kantabriako agureak batzaturik daudela, Erromako mandataria heltzen da bakea eskainiz, “baña Kantabrietarrak aien agindupean eta morrontza gogorrean jartzearen aldera” (87. or.). Eskainitako bakea ez dute onartzen. Kantabriako gerrariak Hernio mendiaren hegaletan borrokari ekiteko prest zeudela, agureek, Tajo deritzan harkaitzaren muturrera igo eta, amildegitik behera botatzen dute beren burua banan banan. Lekobide zaharrak bere buruaz beste egin aurretik, badu erromatarrentzako mezurik:

Esan zaiozute [Octaviori], zuei gaitz egiteko kemen gabe dauden agure zarrak, gerrari gazteak luzaroago zuen kontra pelea ditezen, beren eskuaz kentzen diela bizia beren buruai, eta nola Kantabrietarri eriotza atsegiñ baizaion, bere odola bere semeak ongi ordañduko dutela dakienean, gañera esan zaiozute, agurren ondoren emakumeak: eta urrea aurak ilko dirala (89. or.).

Agure guztien heriotzaren ondotik,

Erromatarrek agure zarren biotz andia eta oien semeen furi izugarria ikusita, eraso gogorrari ezin burutuz igesari eman zitzaizkan (91. or.).

Aitor Aitalehenaren garaietatik mairuen garaira bere lurraldearen askatasuna gordetzeko eginahalak eginaz aurkezten da euskalduna. Definitu ere, askatasun zaletzat definitzen du bere burua: giza komunitate osoak aldarrikatzen duen ezaugarria da. Bestalde, bada, besteek aitortzen dioten ezaugarria ere: atzerritar inbaditzaileek, emaitzak ikusita, etsipenez onartzen dute euskaldunek lokabe bizi nahi dutela eta inoren mendeko ez izateko, beren onenak ematen dituztela. “Euskaldunen bikaiñtasuna” legendan, garaituak

izan diren erromatarrek beren enperadoreari azaldutako iritziaren arabera menperaezinak dira euskaldunak:

O Enperadore andia! Berorrek, erreinu añ zabal eta portitzak azpiratu dituen orrek, jende au sekulan azpiratuko eztu.

Arren ez beza bialdu jende berririk, alperrik izango zaiota (70. or.).

1.5. Jaungoiko bakar bat / “tallu ustelak”

Aitorrek semeei egindako beste eskari bat betez, “tallu ustelak” gurtu gabe, Jainko bakar batengan sinesten dute ondorengoek. Jainko bakar horrek azpiratuko ditu sasijainkoak gurtzen dituztenen legeak.

Aitalehenak semeei esan zien:

Ikus zazute mundua, berriro tallu ustelak adorutzen. Ordea, nere semeak ez dira belauntuko beren eskuetako egitadearen aurrean. Sinistu zazute Jaungoiko bakar batengan (154. or.).

Aitalehenaren irakatsia jarraituz, Aitorren ondorengoak Jaungoikoaren aurrean bakarrik belaunikatuko dira. Joakin Larreta Azelaingoaren “Irakurgaian”, Erroman ehun euskaldun ehun erromatarren aurka neurtzen direnean, euskaldunena izango den arren garaipena, Lartaun buruzagia zaurituko dute. Hil zorian dela, badu mandaturik herkideentzat:

Ez iñoiz eskubiya lurreratu ez bada Jaungoikoaren aurrean... (235. or.).

Neurketa hasi baino lehentxoago ere, batzuen eta besteen sinesmenen arteko aldea agerian uzten du kontalariak:

Prestakuntz guztiyak bukatu dira; gudariyak aurrez aurre jarririk, prest daude bata besteari begira; Euskaldunak belaun ortotsa lurreratu eta Jaungoikoari otoitz egiñez, eta Erromatarak, txut txutik, beren tallu gezurrezkoei oiuka (233. or.).

Franziska Ignazia Arrueren “Euskaldunen bikaiñtasuna” legendan, berriz, “gerra-irrintzia belarrietaritzen” zaionean, honela dio Aitzondo pertsonaiak:

Gurutzeak buruz beeratuko dik Irminsul, Gurutzeak azpiratuko dizkik Erromatarren jaungoikotzakoak. Gurutzea gallen irtengo dek fede eta legegabe guztiakgandik (66. or.).

Mairuen garaian ere, Gurutzea dute gidari euskaldunek. Karmelo Etxegarairen “Andeka” legendan kontatzen denez, Iruñean zela jakin zuen godoen Errege Errodrigok mairuak Españaiko penintsulan sartu zirela. Albistek Iruñea eta Euskal Herria uztera darama. Euskaldunak godoen kontra mendetan zehar borrokan jardundakoak izanagatik, abagune honetan Andekak, Bizkaiko buruzagiak, Bizkaiko gainontzeko buruzagi guztiak deitzen ditu batzarrera. Andekaren esanetan, mairuak

[...] ez datoz bakarrik España menderatzera, baizik Gurutze Donetiyari gerra egitera. Goazen, bada, erritar maiteak, goazen, gure etsaigo txikiak azturik, Errodrigorekin batean, Mairuari erakustera, baldin gure lurra garaitu bear badu, baldin Gurutzea bertatik atera nai badu, gure gorputz illotzen gañetik igaro-bearko duala, zergatik odol guziya ixuri arteraño gordezkeratuko ditugun Gurutzea eta Erria (157. or.).

Karmelo Etxegarairen “Andeka”n bezala, behin baino gehiagotan agertzen da sinesmena, giza komunitatearen izaerari baturik. Sinesmenak ere mugatzen du giza komunitatea, nahiz euskaldunena, nahiz arrotzena. Gregorio Arrueren “Zarauzko ondekidatzea” legendan, kasu, Zarautzen euskaldunek eraiki duten “Torre-bakarra” mairuek inguratu zutenean, kristau ernegatu bati agindu zioten dorrea gordetzen ari zirenei eman beharreko mezua. Kristau ernegatu horri esanarazten diote:

Guziok bizirik larrutu, eta zuen buruak aga luzeen ziertzean sartu, eta denbora txit laburrean daukazuten Torre orren tontorrean ipiñiko ditugu. Baña baldiñ, bestera, onean ematen bazerate, egiaz suerte inbidiagarria mereziko dezute, eta gure uztarri biguñaren pean, patu oneko izango zerate, ala nai badezute, zeron erlijio estuaren aginde gogorak gordez, edota, gure Profet aundiaren Lege eder eta atsegiñaren erara, nai ainbat emazte artuaz (96. or.).

Aia aldeko Landerbide etxe jaunak erantzuten die:

Ez onez eta ez gaitzez atzituko gaituzute (...). Guk libre, gere gañ, eta, pres-tuak bezela, gere fede eta sinistantzen itzalpean, eta arras zorioneko egiten gaituzten anziñako gere lege eta usadio ederren estalpean jarraitu nai degu, eta ez arrotzen uztarpe batean, eta gutxiago zuenean, mundu guziko urrea ematen bali-guzute ere. Emazteai dagokienez, nai ainbat lan ematen dio gutako bakoitzari, Jaungoikoaren Legearen erara iduki genzakean bakarrak, lege au urratzeko tenta-ñian gu erorteko (97. or.).

1.6. Ondradu / faltsu

Aitorrek aditzera eman zien bere semeei:

Ugarteak urpetu dira, baña gezurrak igeri egin du uraren gañean (154. or.).

Testuinguru honetan, uztera doakien herentziaren berri ematen die Aita-lehenak: “bakarrik laga nai dizutet nere izen onraduna, ta” (154. or.). Ondradua izatea, zintzo jokatzera da lagatzen dien ondare nagusietakoa. Aitorren ondoren-goek galduko ez duten ezaugarria da. Hala aitortzen dute erdaldunek. Pelaiok, Kantabriako dukeak berak, Aitor pertsonaiaren etxean jasotako babesaz gozatu ondoren, euskaldun guztientzako errespetua eskatuko du:

Gaur ez dezaket zuentzat deus ere egin; baño bigar, nik esango diet nere seme eta mendekoai, Euskaldunak errespetatu eta maitatu ditzatela (146. or.).

Haatik, Aitalehenak jakinarazi bezala, gezurrak igeri egin du uraren gainean eta Kantabriako dukeak agindutakoa ez da ekintzetan gauzatuko. Arturo

Kanpionen “Agintza” honetan kontatutako istorioan etorkizuna ere iragartzen da, Pelaiok Aitor pertsonaiari hitz emandakoa ez duela beteko aurreratuz:

Pelaio urrun zijoalarik, bele bat etorri zan etxeraño. Aitorrek ikusi zuenean, musu bat eman bere illobai, eta tristiro esan zien, ‘nere semeak, *Erdaldunaren agintzak gezurrak dira*’ (147-148. orr.).

Aitorren ondorengoek ondradu ez ezik, prestu ere ikusten dute beren burua. Gregorio Arrueren “Zarauzko ondekidatzea” legendan, Aia aldeko Landerbide etxe jaunak VIII. mendean dioenez,

Guk libre, gere gañ, eta, prestuak bezela, gere fede eta sinistantzen itzalpean (97. or.).

Aurretik ere aitortua zieten euskaldunei prestuak izatea. Erromako enperadoreak berak aldarrikatua zuen. Franziska Ignazia Arrueren “Euskaldunen bikaiñtasuna” legendan, hirurehun euskaldunen eta hirurehun erromatarren artean Erroman egindako neurketan euskaldunak garaile atera ondoren, honako aitortpena eskuratzen dute enperadorearengandik:

Zuek guziok odol garbikoak, guziok prestuak, guziyok jaunak zerate zuen lurrean. Egja ezta, erromatarrak? (72. or.).

Aitalehenaren ondorengoek guzti hori irabazi dute. Hark ondraduak izatea eskatu zien eta egin duten ibilbidean horrela jokatu dute. Hark lokabe izan nahi bazuten, mendian gelditzeko aholkatu zien. Mendian gelditu ziren eta menperatzera etorri ziren guztiei aurre eginaz, lokabe izanaz jarraitu dute. Horrela, prestu eta odol garbiko izatea ere irabazi dute. Baita aitorten hori etsaiengandik jasotzea ere.

2. XIX. MENDEAREN AZKEN LAURDENETIK IDATZIAK

Legendok kontatutako gertaerak iragan denboretan kokatzen diren arren, XIX. mendearen bukaerako ikuspegitik idatzita daude, hots, idazketaren denborako ikuspegitik, eta ez kontatzen dituzten gertaeren garaiko ikuspegitik. Orain alditik iraganera begiratu ostean eraikitzen duten lehen aldia, orain aldiko pentsamendutik isurtzen da. Dirudenez, Aitor Aitalehenak eratutako identitatea galzorian atzeman zuten mende horren azken hamarkadetan eta identitate horren izaera eta nolakotasuna azal zezaketen istorioak kontatzeari ekin zioten.

Bigarren gerrate karlistaren amaierak ekarri duen foru-galeraren ondoren idazten dituzte istorio horiek. Baldintza historiko hauetan, euskaldunaren identitatea desagertzeko arriskuan somatzen duten unean, antzinako denboretan bilatzen dute babesa eta orain aldiari aurre egiteko ikasgaia. Orain aldian faltan botatzen dutena iragan denboretan aurkitzen dute, besteren mende inoiz egon ez zelako, erabakitzeko ahalmena zuen giza taldea aurkeztuz eta ahalmen horri eusteko egin zituen balentriak kontatuz. Lehen

aldira begiraturaz, orain aldiko usteak justifikatu nahi dituzte: nortasun bereziko komunitate bat eratu zenez eta luzaroan iraun duenez, eskubidea du nortasun berezi hori errespeta diezaioten.

XVIII. mendeko historia egileek kantabrismoaren teoriarekin jarraitzeko arrazoi politikoak izan bazitzaketen, legenda egile hauek ere arrazoi politikoak izan zitzaizketen gaiak hautatzeko eta mamitzeko garaian.

Lehenaldi urruneko euskaldunek erakutsitako jokabideek eredu bikaina osatzen dute XIX. mendearen azken laurdeneko orain aldirako. Arturo Kanpionek, “Denbora Antxiñakoen Ondo-Esanak” legendan, adibidez, izenburutik bertatik jarraibide legez dakusa iragana. Izenburutik kontaketara, lehenik, orain aldia aztertzen du:

Gaba zan. Egun argan (sic) berean lege gogor, kaltegarri eta bidegabe batek zoriontasun eta onorea Euskaldunai kendu izan ziezten. Ni, etxe-balkoian sostengatua, Kastillako zelai latzari begira nengoen. Negar-malkoak nere aurpegiya bustitzen zuten, eta biotz gaisoak, miñaren ezpat zorrotzaz zulatua, oiuka eta aiezka bere aserre biziya agertzen zuben (123. or.).

Konetakaren barnetik konetatzen duen kontalariaren ikuspuntua da: pertsonaia bera da kontalari eta bere orainaldiak, idazketaren garaiko orainaldiak, eragiten dizkion sentimenduak agertzen ditu: mina eta haserrea. Orainaldian mina eta haserrea eragiten dion kausa ere mugatzen du: lege gogor eta bidegabe bat. Kausa mugatzeaz gainera, kausa horrek sorrarazitako sentimenduak giza talde batera zabaltzen ditu: lege gogor eta bidegabeak euskaldunei kendu die zoriona eta ohorea. Nahiz eta datatzera ez iritsi, ezta lege jakinik aipatzera ere, bigarren gerrate karlistaren ondoren ezarritako legeaz diharduela atzematea ez da zaila:

[...] ama guziyak ikustean beren semeak urteoro lapurtu dizaieztela, esango dute: –Nun dira oraiñ fueroak? –Eta nik, orregatik, galdetzen det orain: Nola salbatuko gera, Jaun-Jaungoikoa, gu Euskaldunok? (123-124. or.).

Orainaldiak zeharo kezkatuta daukan pertsonaia-kontalariari aingeru bat agertuko zaio gonbit zehatza luzatuz:

–Ez ikaratu; atoz nerekin: denpora antxiñakoen Aingerua naiz; nik erakutsiko dizut tranze estu ta larrietan zer egin oi zuten gure asabak. Nai dezu, ori ikustera, nerekin etorri? (124. or.).

Beraz, lehen aldirako bidaia ikasteko planteatzen da, orainaldian bizi dituzten zailtasunei erantzuteko eskola apropos bezala.

Pertsonaia-kontalariak gonbita onartzen duenez, denboran zehar egingadako bidaiaren ondotik Antzinako Euskal Herrira helduko dira. Antzinako Euskal Herrian gertaera batzuen ikusle bihurtzen du aingeruak, orainaldiak arduratuta daukan pertsonaia-kontalaria. Aitorren alabaren kantuak ixten du gertaeren ikuskizuna:

Begira, Euskaldunak; (...); eska zaiogun Jaun Jaungoikoari, salba dezala Euskal-erriya elkartasunaren bidez (132. or.).

Aitorren alabak kantatutako kantuaren amaierako hitz giltzarria “elkartasuna” da. Kantu honek laburbiltzen du aingeruak erakutsitako gertaeretatik ikasi behar den ikasgaia.

Antzinako denboretan, premia akuilu, euskaldunak nola elkartu ziren ikusteko aukera ematen dio aingeruak bidailagunari: Octavianok, Erromako enperadoreak, euskal buruzagiei igorritako pergaminoak zeraman mezuak Erromaren menpe bizi ala gerrari ekin hautatu beharrean jarri zituenean euskaldunak, gertaturikoa, hain juxtu. Gerra aldarrikatzen dute euskaldunek. Alabaina, buruzagietako bati, Utxin Tamaiori, erabakiak sentipen kontrajarriak sorrarazten dizkio: atsegina eta oinazea. Hona, oinazearen kausa:

Nigar egiten det, ikusten dedalako Euskal-erriaren ondamena datorrela. Elkarterik gabe indarrik ez da. Kanpotikako etsaia txit aundiya izanik, oraindikan ere etxe barruan besterik daukagu. Denbora batean, Euskaldun guztiyak anaiak ziran; bake gozoan bizitzen zan gure mendietan; gaur etsaiak gera, ura eta sua bezala (128. or.).

Utxin Tamaioaren kezkek, ordea, erantzun positiboa jasoko du; izan ere, Utxin Tamaioaren esana entzunaz, Lekobidik eta Zarak bakeak egingo dituzte. Une horretan adiskidetuko dira Lekobidi, Zarak hil zuen Leloren aita, eta Zara. Hala, Zarak Lelo hil ondoan euskaldunen artean sortutako gerrari amaiera jarri eta, elkarren etsai zirenak bat egiten dute.

Lehen aldiari kanpotiko erasoari indarrak batuz erantzun bazitzaion, oraingoari ere berdin erantzutea proposatzen da.

Aitorren alabaren kantarekin bukatzen da Antzinako Euskal Herriari pertsonaia-kontalariak ikusteko parada izan duena: “Orra emen, Aingeruak erakutsi didana”. Jarraian XIX. mendearen hondarreko euskaldunei zuzendutako gonbita zabaltzen da: *Aditzeko belarririk dituenak, aditu dezala* (132. or.).

Kanpionek iragan denboretara begiratzen duenean, orain aldia du gogoan. “Denbora Antxiñakoen Ondo-Esanak” legendan ez ezik, baita “Agintza” izenburudunean ere.

Mairuek Guadaletoko bataila irabazi ostean, Pelaio, Kantabriako dukea, ate-joka etorri zen Aitor pertsonaiaren etxera. Bere etxean ostatua eman zion Aitor, gisa honetan agurtu zuen Pelaioak:

–Agur, jauna, ez naiz beñere aztuko zure etxean artu nazula, gose ta nekatua nengoenean, arri bat gabe nere burua sostengatzeko, eta nere oñak igestearen nekeaz odola zeriotenean. Gaur ez dezaket zuentzat deus ere egin; baño bigar, nik esango diet nere seme eta mendekoai, Euskaldunak errespetatu eta maitatu ditzatela.

Aitorrek euskaldunen eskaera gogoratzeko aprobetxatuko du abagunea:

Eskerrik asko, jauna, (...); guk ez degu deus ere eskatzen, ezpada pakean mendi santu oetan, gure fuero ta oitura onakin bizitzeko baimendua. Zoaz Jainkoarekin, eta oroitu zaita Aitorri egin diozun agintzaz (146. or.).

Eskaerari jaramonik ez zaiola egingo iragarritz amaitzen da kontaketa:

Pelaio urrun zijoalarik, bele bat etorri zan etxeraño. Aitorrek ikusi zuenean, musu bat eman bere illobai, eta tristoro esan zien, “nere semeak, *Erdaldunaren* agintzak gezurak dira” (147-148. or.).

Kanpionek sortutako Aitor pertsonaiak une horietan ez du motiborik erdaldunen agintzak gezurak diren ala ez epaitzeko, etorkizuneko jokabideen menpe dagoen balorazioa baita. Oraindik epairik egiterik ez dagoelako jotzen du belearen irudira, zoritxar-igarle den txoriaren irudira, hain zuzen ere. Belea zoritxar-igarle izanik, Aitorrek igarri egiten du zein izango den erdaldunek euskaldunekiko hartuko duten jarrera. Bistakoa da epai honen egilea XIX. mendearen azken laurdenean bizi den Kanpion dela eta ez Pelaioaren, Kantabriako dukearen, garaikide zen Aitor pertsonaia. XIX. mendean barrena foruek jasan dituzten galerek eragindako sentimenduetatik sortutako erantzuna da.

Foruen galerarekin Aitalehenak eratutako identitatea auzitan dago. Identitateari eusteko beharrezkoa da, Aitor pertsonaiaren ahotsean jarriak izanagatik, Kanpionenak diren hitzetan, “pakean mendi santu oetan, gure fuero ta oitura onakin bizitzeko baimendua”. Nahi horren adierazpena erraz uztartzen da Aitalehenak egindako adierazpenekin: “ez gaitean irten beñere [mendi horien artean] dauden ibarretatik”; “Aberatstasun danak baño gozoagoa da pakea. Billa dezagun bada”; “ez izan iñok mendetuko zaituzten beldurrik”. Foruak dira askatasunaren babesleak.

Dena den, Arturo Kanpion ez da bere burua salatzen duen bakarra. Alegia, ez da lehen aldia bere orain alditik atzematen ari dela agerian uzten duen bakarra. Aztergai den corpusa osatzen duten legendek kontatu zituzten istorioetan bada arrasto nabarmenik: gainontzeko legendetan ere, idazlearen orain alditik eraikitzen da lehen aldia.

Hala, Etxegarairen “Andeka”n, Andeka euskal buruzagia mairuen aurkako gerran hil ondoren, koblariak kantatzen duen kantak amaiera aldera jasotzen duen goiburuak, badu antzik XIX. mendeko alderdi politikoren baten goiburuarekin:

Aurrera, bada, Euskaldunak, aurrera! Etorri ziran Erromatarrak, eta joan ziran; etorri ziran Godoak, eta joan dira; badatoz Mairuak, baña oek ere, guztiyok alkar-turik gordozkeratzen baditugu Euskaldun egiazkoen modura, Jaungoikoa eta Erriya, joango dira bai! joango dira; Euskaldunak, gogor, gogor Mairuari (161. or.).

Jaungoikoa eta Herria goiburuak ez zuen izaerarik mairuen garaian, Etxegarairen legendak kontatutako gertaerak kokatzen diren sasoiari.

Franziska Ignazia Arrueren “Euskaldunen bikaiñtasuna” legendan, berriz, Erromako enperadoreak euskaldunak karakterizatzeko “Zuek guztiok odol garbikoak, guziok prestuak, guziok jaunak zerate” dioenean, jazoeron garaian oraindik jaiο gabe zeuden kontzeptuetara jotzen du. Erromatarren Aroa Aro Modernotik urrun dago eta Aro Modernoa baino lehen ez dute agerrera egiten ideia horiek.

Atzerritarren ahotsean ez ezik, euskaldunen ahotsean bertan entzun daitezkeen ezaugarriak dira. Adibidez, Joakin Larreta-Azelaingoaren “Irakurgaia”n, Erroman ehun euskaldunek ehun erromatarren aurka egindako borrokan, Lartaun euskaldunen agintaria zauritu zuten. Zauri horien ondorioz hiltzera doala, agintari legez zeukan ikurra itzultzean, lokabe eta garbirik jaso zuena, berdin bihurtzen duela gogorazten du:

[...] eta artzazute nere eskubetatik, gure antxiñako lauburua. Lokabe eta garbirik eman zidan Kantabriyak eta len beziñ garbi eta osoa, biurtzen dizutet, iñon, atzerritarren aurrean, makurtu gabe. Eraman dezazute gure dierriko mendi maiteetara eta beti iraun dezala lokabe eta garaitsu (235. or.).

Era berean, Gregorio Arrueren “Zarauzko ondekidatzea” legendan, Aia aldeko Landerbide etxe jaunak VIII. mendean “Guk libre, gere gañ, eta, prestuak bezela” esaten duenean, Aro Modernoan izatea hartzen duten kontzeptuak askoz lehenagoko denborei atxikitzen die.

Legendok kontatzen dituzten jazoeren garaian oraindik izaterik ez duten kontzeptuez hornitzen dituzte pertsonaien ahotsak: geroago jaiο eta esanahiaren jabe egingo diren kontzeptuez, hain juxtu.

Giza komunitatearen jatorria Aitalehen batengan jartzea, (honen ondorengo guztiak odol bereko eginaz), giza komunitatea odol garbikotzat, pres-tuzat jotzea... estatu modernoan jaiotzan garatzen den pentsamenduan moldatzen dira. Aitalehen baten ondorengo, odol garbiko, prestu... izatea oinarritzko ezaugarri bihurtuak ditu Aro Modernoak giza komunitate bati izaera emateko. Honenbestez, euskal legenda egileek kontatutako istorioetan ageri diren anakronismoek badute eginkizunik: euskaldunek giza komunitate berezitua eratzen dutela egiaztatzea dute jomuga.

Legenda egileok aurkezten duten lehen aldia ez dago kontagai hartzen dituzten gertaeren garaitik eraikia, baizik eta gerora sortutako kontzeptuen gain eraikia: orain aldiko ikuspegitik aztertzen da lehen aldia.

Azken batez, XIX. mendeko legenda egileek Pirinio mendietan giza komunitate bat eratu zela eta komunitate horrek bazuela identitate jakina erakutsi nahi dute. Mendetan barrena gorde den identitatea da, harik eta legenda egileon egunetan berriro eraso duten arte. Ez da lehenbiziko aldia: iragan denboretan ere pairatu ditu erasoak, baina erasotzaileek ez dute lortu ezabatzerik; izan ere, erasotzaileari ausarki aurre eginaz, Aitalehenak eraturako identitateari eutsi dio euskaldunak. Lekobidi, Zara, Lartaun, Begaiñ Arrakill, Utxin Tamaio, Andeka, Landerbide... ala izen propioz izendatu gabeko agintarien

esanetara, ibilbide oso luzean, lokabe izaten jarraitu dute, Jaungoikoaren aurrean bakarrik belaunikatuz, aberastasunak eragiten dituen tentazioetan erori gabe... Orain, Lekobidi, Zara, Lartaun, Begaiñ Arrakill, Utxin Tamaio, Andeka, Landerbide... eta gainerako agintariak buru zituztela gordetako identitatea galzorian dakusatenean, horien gestak gogoratzen dituzte: arrisku-UNETAN hartu zituzten jokabideak kontatzeari, euskaldunaren identitatea deusezteko asmoz zetorrenari emandako erantzunaren akta jasotzeari ekiten diote, hain juxtu: arbasoek identitatea babesteko erakutsitako ausardia eta kemena agerian jartzeko ordua da.

Euskaldunak erabakitzeko ahalmena izan zuela frogatzea dute xede. Helburua eskuratzeko euskarri dute legendotan barrena kontatutako istorioetan euskaldunak azaleratzen duen nortasuna. Aitalehenak eratutako identitatea da. Aitalehen baten ondorengo izateak, odol bereko bihurtzen ditu komunitatea osatzen duten kide guztiak. Inoiz inoren menpe egon ez izanak, ez, beste euskaldun baten menpe, ezta inolako atzeritarren menpe ere, odol garbiko eta prestu bihurtzen ditu.

Horra hor lokabe, odol garbiko eta prestu gorde den giza taldea eta, ondorioz, erabakitzeko ahalmena daukana. Erabakitzeko ahalmenak eraso berri bat jasan duen egunetan, iragan denborak gogoratzen dituzte legenda egileok, oztopo guztiak gaindituz identitateari eusten dion euskalduna aurkeztuz. Orain, lehenaldi saiatu, arduratsu eta ospetsu horretan begiratzeko ordua da, dela harrotasunez so egiteko, dela orainaldiak sorrarazitako min eta haserreari erantzuteko, dela eraso berria salatzeke, dela erabakitzeko ahalmena auzitan jarri dela nabarmentzeko, dela orainaldi honetarako ikasgairan bat iradokitzeke...

BIBLIOGRAFIA

- AGIRREAZKUENAGA, Joseba. "A. Oihenarten *Notitia utriusque Vasconiae*: berrikuntza eta eragina euskal historiografian". In: *Oihenarten laugarren mendeurrena*, Iker-8. Bilbo: Euskaltzaindia, 1994; 643-651.
- APPIAH, Kwame Anthony. *La ética de la identidad*. Buenos Aires: Katz Editores, 2007.
- ARRUE, Franziska Ignazia. "Euskaldunen bikaiñtasuna". In: *Euskal-festak Donostian. Oroimengarria*. Donostia: Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, 1886; 19-24.
- ARRUE, Gregorio. "Aspaldi ayetako gure asabak euskaldunak ziran; gu ere bai omen: ala uste". In: *Euskal-festak Donostian. Oroimengarria*. Donostia: Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, 1882; 35-45.
- . "Zarauzko ondekidatzea". In: *Euskal-festak Donostian. Oroimengarria*. Donostia: Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, 1884; 23-27.
- BOUSOÑO, Carlos. *Épocas literarias y evolución. Edad Media, Romanticismo, Época Contemporánea*, I. Madrid: Editorial Gredos, 1981.
- CAMPION, Arturo. "Agintza". In: *Euskal-Erria*, XVI, 1887. Donostia; 29-30.

- . “Denbora Anchiñakoen Ondo-Esanak”. In: *Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria*. Donostia: Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, 1881; 19-28.
- ECHEGARAY, Carmelo de. “Aitor-en etorrera edo Euskal Erriaren aziera”. In: *Euskal-festak Donostian. Oroimengarria*. Donostia: Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, 1882; 47-50.
- . “Andeka”. In: *Euskal-Erria*, IX, 1883. Donostia; 549-554.
- Euskal izkribatzalleen indar-neurtzea, 1879ko Agorrillaren 7garren egunean Donostian eguiña orretarako artu diran prestamen, eta sariztatuak izan diran izkribu-antolamenduen oroitza*. Donostia: Antonio Baroja-ren moldizkira, 1879.
- LARRETA-AZELAINGO, Joakin. “Irakurgaia”. In: *Euskal-Erria*, XIX, 1888. Donostia; 356-360, 392-394.
- LOPEZ ALEN, Franzisko. “Antziñako Nafar-mendiko oroitz bat”. In: *Euskal-festak Donostian. Oroimengarria*. Donostia: Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, 1890; 19-24.
- MOLL, Nora. “Imágenes del ‘otro’. La literatura y los estudios interculturales”. In: GNISCI, Armando. *Introducción a la literatura comparada*. Barcelona: Editorial Crítica, 2002.
- MONREAL ZIA, Gregorio. “Larramendi: madurez y crisis del régimen foral”. In: LAKARRA, Joseba Andoni (Ed.). *Manuel Larramendi hirugarren mendeurrena. 1690-1990*. Andoain, 1992; 91-135.
- RAMÍREZ, Juan-Daniel. “Constitución Literaria de la Identidad Nacional. El caso de Argentina”. In: ROSA RIVERO, Alberto; BELLELLI, Guglielmo; BAKHURST, David (Eds.). *Memoria colectiva e identidad nacional*. Madrid: Biblioteca Nueva, 2000.
- TOLEDO, Ana M. (Ed.). *Leiendak (1879-1891)*. Donostia: Etor, 1990.